



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-01-30

VIURTEA 1.349.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñigo Perurena, Arpegiko kidea. ESTI EZEIZA

URTERO LEGEZ IRONIA ETA UMOREA OSTIRAL MEHEKO JAIALDIAN


TOLOSA 30. aldiz Arpegi taldeak antolatu du jaialdia; Iñigo Perurena kideak «edozer egiteko prest egon behar dela» dio, jaialdiaren atarian 3

Kudeaketa batzorde batek hartuko du ostiraletik aurrera Elduaingo Udaleko ardura

ELDUAIN Pasa den urteko hauteskundeetan PPK gobernua eratzeari uko egin ondoren bost eledun izendatu dituzte 6

Euroagindua ukatu eta aske utzi dute Eneko Galarraga

VILLABONA Hamabost egunez behin azaldu beharko du Donibane Lohizuneko komisaldegian 6



N. URBIZU

BRIXI ARRUE ALBIZTURKO ALKATEA

«Jendearen inplikazioa eta herritarrak direla ikustea nahi dugu»

ALBIZTUR Ramon Lasaren heriotzaren ondoren, udaletxea berriz ere martxan jarri dute 4

19-90 19-90 19-90

BISITA GAITZAZU INAUTERIETAN!!!

- JATORRI DESBERDINETAKO ARDOAK
- PINTXO BEREZIAK
- MUSIKA ELEKTRONIKOA
- GAU GIRO BIKAINA

IBON LEUNDA
KOLDO SARASOLA
AITZIBER JAUREGI

EUSKAL HERRI PLAZA 5 • 20400 TOLOSA



Edurne Ormazabal. JUAN CARLOS RUIZ/AP

Edurne Ormazabalek Euskadi Gaztea utziko du, 17 urte eta gero

Komunikabideak » Irratiko koordinatzaile kargua utzi eta EITB.net-eko kargu berri bati helduko dio tolosarrak.

ERREDAKZIOA

Egun gutxi barru Euskadi Gaztea irrati koordinatoratzaile kargua utziko du Edurne Ormazabal tolosarrak, eta aurrerantzean EITB.net-eko ardura berri bati helduko dio.

Hain zuzen ere, datorren martxoan 18 urte beteko zituen Euskadi Gaztea irrati formularen lanean. 1990. urteko martxoaz geroztik irrati formula horri uzartuta ibili izan da. Hemendik aurrera, berriaz, EITBk Interneten duen EITB.net-enariko da lanean. Hala, EITBk web orrian dituen gaikako atariak eta kanpoko bezeroentzako atariak adierazi duenez, EITBren organigraman «aldaketa handiak» ematen ari dira. Arrazoi horiek medio, hemendik gutxira lanpostuz aldatuko duela baieztatu du. Euskadi Gaztea irrati koordinatoratzaile kargua nork beteko duen oraindik zehazteko dagoela ere esan du.

Ormazabalek Donostiako Herri Irratian egin zituen kazetaritza hastapenak. ETBn, berriaz, *Katu kale*, *Zine Oro* eta *Euskal kanturik onena* programetan aurkezle lanetan ere ikusi ahal izan da. Horiez gain, Espainiako kateetan, Canal Plus eta Antena3en, besteak beste, aritu izan da lanean. Bestalde, hainbat alditan Donostiako Zinemaldiko galetan aurkezle lanetan ere aritu da.

E Elkarrizketa

AITZIBER LAZKANO » Voith-Gorostidi bulegoko arduraduna

«Aldatzea benetan beharra dutenek egingo dute eskaria»

Hirigintza » Etxebizitza tasatuen adjudikatzaileek etxerik aldatzeko eskaria egin ahaliko dute, otsailaren 7a baino lehen. Zozketa otsailaren 14an egingo dute, udaletxean.

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak urtarrilaren 21eko Gobernu Batzordean Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuen adjudikatzaileen artean etxerik aldatzeko prozedura onartu zuen. Aitziber Lazkano da Voith-Gorostidi bulegoko arduraduna, eta berak azaldu ditu zozketa berriaren nondik norakoak.

Zergatik hartu duzue etxerik aldatzeko prozedurarekin hasteko erabakia?

Etxebizitza tasatuen adjudikaziorako zozketa egin genuenetik bulegora etorri da jendea bi eraketa arrazoi desberdinetatik egokitu zaien etxebizitza aldatuko luketela esanez. Batetik, hasieran espero zuten baino garestiagoa dela etxebizitza adierazi dute batzuk; 2 gelakoa nahi izan, eta 3 gelakoa egokitu zaien batzuren kasua da hau, espero baino handiago delako etxebizitza, eta ondorioz, prezioa ere handiagoa da. Bestetik, gertatu izan da, etxebizitza handiagoa nahi izatea ere, eta hau agian, gela batekoa egokitu zaien artean izan da batik bat. Hala, aldeko eta kontrako puntuak ikusi eta aztertu ditugu, eta batzuen mese derako behintzat izango dela ikusi dugu.

«Dirua edota etxebizitzaren tamaina izan dira etxerik aldatzearen arrazoiak»

nez, ba orduan aurrera egitea erabaki dugu.

Oraingo zenbatek nahi dute etxerik aldatu?

Askok deitu dute galdetzeko, baina azkenean 10 bat izan dira euren etxea utzi eta zozketan sartzeko izena eman dutenak. Otsailaren 7ra arte dute etxerik aldatu nahi dutenek izena emateko aukera.

Behin izena emanda zure etxerik aldatu duzula esan daiteke.

Argi eduki behar dena da, behin



I. TERRADILLOS

etxerik aldatzeko erabakia hartzen baduzu, ez dagoela atzera bueltarik, hau da, zure etxebizitzaren eskubidea galdu duzula. Horregatik jendeari esaten diogu ondo pentsatzeko izena eman aurretik. Beraz, ez dakigu jende asko etorriko den ala ez. Izena ematen dutenek benetan beharra dutelako ematen dute, hau da, benetan ezin dutelako ordaindu, edota etxebizitza txikia izan eta handiagoa beharrezkoa dutelako. Hauen kasuan, nire ustez lehenbailehen egiteko gauza da, horregatik ez dakigu zenbat jende egokitu duen eskaera.

Behin izena emanda, zozketa izango da hurrengo pausoa.

Bai, eta otsailaren 14an izango da udaletxean, 12:00etan. Prozeduraren baldintzak eta ezaugarriak Udalaren web orrian (www.tolosakoudala.net), udaletxeko iragarli taularan eta Udaten ikus edo eska daitezke.

Nola izango da zozketa?

Behin eskaerak beteta, guk ikusi behar dugu ze motatako etxebizitzak utxi dituzten, eta horren arabera izango da zozketa. Esaterako,

batetik, 3 gelako 3 etxebizitza uzten badituzte, eta bestetik, 2 gelako beste 3, ba orduan denak sartuko liturke zozketan denentzat dagoelako aukeran. Baina, gerta daiteke 3 gelako etxebizitza utzi nahi dutenak gehiago izatea aukeran daudenak baino, orduan jendea lehengoarekin geratuko litzateke.

Gerta daiteke ordaintzeko arazogatik 3 gelako etxebizitza utzi eta aldatu nahi izatea, ondoren zozketan 2 gelakoa egokitzea, baina honek duen tamainuagatik prezioa antzekoa izatea?

Hori gertatzea posible da, badaudela 3 gelako etxebizitzak 2 gelako baino azalera txikiagoak direnak, eta azken finean prezioa azaleraren arabera da. Izan daiteke, baita ere, kokapen egokia izatea egokitu zaizun etxebizitzak, eta gero zozketan sartu ondoren kokapen txarragoa duena egokitzea. Horregatik, zozketan sartu baino lehen nik ondo pentsatzeko esaten diet, gauza asko hartu behar direlako kontuan, eta benetan izan behar duzu etxerik aldatzeko arrazoi sendoa.

L Laburrak

Usabal itxita egongo da otsailaren 6ra arte

KIROLA » Usabal Kiroldegia itxita egongo da etzi hasi eta otsailaren 6ra arte, biak barne, 32/2003 dekretuak eskatzen dituen ekintzak burutu ahal izateko. Era berean, epe horretan beste hainbat ekintza egiteko aprobetxatuko dutela adierazi dute Usabal kiroldegiko arduradunek. Bestalde, hidroma-saia, lanak direla-eta otsailaren 12ra arte itxita egongo da. Hala, arduradunek gogoratu nahi diete erabiltzaileei Villabonako kiroldegia erabiltzeko aukera izango dutela. Itxierak sor ditzakeen eragozpenengatik barkamena eskatzen diete denei.

Bihar Inauterietako jaialdia, Sakramentinoetan

INAUTERIAK » Bihar Ostegun Gizona izango da, Inauterien lehendabiziko eguna, eta Laskorainen festa berezia antolatuko dute. 10:45ean Sakramentinoetako patioan izango da festa. Aurten herri kirolez mozorrotuko dira. Herriar guztiak gonbidatzen dituzte jaialdia ikustera.

Tolosa eta Ordiziako beteroenen arteko lehia

KIROLA » Usabal kiroldegiko zelai artifizialean etzi Tolosa eta Ordiziaren arteko beteroenen mailako norgehiagoka jokatu dute. Partida 18:00etan izango da, eta Real eta Atletico Madrilaren arteko norgehiagokaren baitan antolatutakoa da. Futbol Indoor I. Txapelketako partida da Real eta Atletico Madrilaren artekoa, eta Usabalen jokatu dute etzi, 20:00etan. Hain zuzen ere, txapelketa horren baitakoak diren etxeko partida guztiak, Realak Usabalen jokatu ditu. Sarrerak salgai daude, Shanti Kirolak dendan, Usabalgo Bide Bide tabernan eta Anoetako Haizea tabernan.

Hirukideko gaztetxoan jaialdia, bihar, Beotibarren

INAUTERIAK » Hirukide ikastetxeko gaztetxoek jaialdi berezia prestatu dute, urtero bezala, biharko, Ostegun Gizonerako. Beotibar pilotalekuan izango da jaialdia 10:30etik aurrera, eta *Ipuinak* izango da izenburua. Txanogorrituz, Nuba, Moli eta Arisez, 101 Dalmatez, Pinotxo eta Gepetoz, Edurne Zuri eta 7 ipotzez, Beruneko soldadutxoaz, Hamelingo xirulariaz eta Harrikeretaz mozorrotuko dira bertako ikasleak.

HAU GAZTERIA...!

Gipuzkoan 50.000 gaztek baino gehiagok lanpostu bat dute

JAKINA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Foral de Gipuzkoa
Gobierno Vasco / Departamento
Departamento de Política Social



Umorea eta ironia ez dira faltako etzi Arpegiren Ostiral Meheko jaialdian

Tolosa » 30. aldiz antolatu du jaialdia Arpegi taldeak; aurtengoa ere Leidor antzokian izango da, 22:45etik aurrera.

ESTI EZEIZA

Ohiturari jarraituz, etzi, Inauterien baitan Ostiral Meheko jaialdia ospatuko da. Arpegik 30. aldiz antolatutako ekitaldia 22:45ean hasiko da, eta Leidor antzokian izango da.

Emanaldiaren baitan, hasteko, play-back saioak izango dira, eta ondoren, zuzeneko saiak. Orotara 27 antzezlek hartuko dute parte, eta umorea da ardatza. Antolatzaile-



Play Back saioak eta emanaldi ezberdinak ikusi ahal izango dira Arpegik antolatutako saioan. NEREA URIBIZU

leen esanetan, «abesten nahiko kaxkarrak dena kantuan jartzeko dugu, eta hitz egiten abilezia handirik ez duena, beste horretan». Gauza guztiei buelta ematen saiatzen dira, eta ironia erabiliz, kritika egiten. Honez gain, kanpoko pertsonaiak Tolosara ekartzen dituzte.

Ostiral honetan emanaldiak prestatzeko irailen hasi ziren lanean Arpegikoak. Izan ere, beraiek arduratzen dira ekoizpen lan guztiaz: dekoratuaz, jantzetaz, argietaz, gidoiaz... Bakoitzak prestatzen du gutxi gora behera eskainiko duena emanaldian. Antolatzaileen esanetan, «gehienetan badakigu ikusleei zer gustatzen zaien, baina batzuetan zaplaztekoak ere hartzen ditugu». Emanaldi gehienak taldekakoak dira eta denen artean prestatzen dituzte. Orain, emanaldirako bi egun besterik falta ez direnean, burubelarri dabilza Arpegikoak, azken orduko entseguetan.

«Edozer egiteko prest izan behar da»

IÑIGO PERURENA » Arpegiko kidea

Inauterik » 27 kidek osatzen dute Arpegi taldea, profesionalak ez badira ere, emanaldi «txukuna» prestatu dute.

E. EZEIZA

Arpegiko kide da Iñigo Perurena (Tolosa, 1972) eta jaialdiaren inguruko hainbat xehetasun azaldu ditu, nahiz eta ez argitu zer nolako izango den aurtengo Ostiral Meheko jaialdia.

Nondik sortu zen Ostiral Meheko jaialdia?

Aurtengoa 30. edizioa da. Orduan hasi zireneko bi kide oraindik taldean daude, eta gehienak plaza gizonak dira. Hasiera batean, jaialdi hau Iurreamendi egoitzakoei zuzenduta egoten zen. Gainera bi

saio egiten genituen, bata arratsaldean, eta bestea gauean. Bestalde, lehen, erregina aukeratzen zeneko garaian, hauen soineko guztiak Arpegik gordetzen zituen.

Zein ezaugarri izan behar dira saio honetan parte hartzeko?

Lotsa gutxi izatea. Hau da, edozer gauza egiteko prest egotea. Esaterako, emanaldi batean erdi biluzik jartzeko eskatzen zaie eta ez dute trabarik jartzen.

Zein estilotako saioek dute arrakasta gehien?

Niri pertsonalki, partaide batzuk duten umorea ez zait gehiegi gustatzen, eta nire beste batzuei ere ez. Baina ikusten da, jendeak gustura hartzen duela eta horregatik, denentzako gauzak egin behar dira. Gainera, askotan, saio bat entseguetan oso onaez delairuditzen bazaizu ere, eskenatokira igozte-



ESTI EZEIZA

an, eta jendearekin hazi egiten dira eta politago egiten dute.

Partaide gehienak eskenatoki gainera igotzen ohitu gabe daude?

Bai, baina plaza gizonak dira horietako batzuk. 27ren artean, batzuek dohai batzuk dituzte, eta besteek, beste batzuk.

Alkatea zirikatzen ohi zara duzue zuen saioan.

Bai baina aurtengoa ez dugu egingo oso lan ona egin baitu. Gainera, lehendabiziko aldiz dator Jokin Biddarratz gure jaialdia ikustera. Baina ez dakit entzundakoak entzun ondoren itzuliko den.

Zer esango zenieke tolosarre, jaialdia ikustera joateko?

Gustatuko litzaidake, inoiz etorri ez den jendea bertaratzera. Betikoa etortzea ondo dago, eta preziaztekoa da baina bada jendea ez dena egon, eta aukera eman diezaiokegu zer egiten dugun ikusteko. Gutako inor ez da profesionala baina oso ikuskizun txukuna egiten dugu. Ez dakit ongi egiten dugun baina gogoia behintzat jartzeko dugu.

Uda honetan begirale titulua ateratzeko aukera

Gizartea » Hezkide Eskolak antolatu du ikastaroa; eskolak, Larraularen duen baserrian izango dira, uda honetan zehar.

ERREDAKZIOA

Hezkide Eskolak haur eta gazteen astialdirako begirale ikastaroa antolatu du Tolosaldean. Eskolak Larraularen duen baserrian garatuko dituzte. Ikastaroa 200 ordukoa da eta otsaila eta maiatza bitartean honen lehenengo zatia eskainiko



Eskolak Larraularen duen egoitzan eskainiko dute ikastaroa. HITZA

dute, 8 asteburutan. Ikastaro hau ludoteka, gazteleku, aisialdi talde, udalekueetan, ... lan egiten duten edo lan egin nahi duten gazteei zuzendurik dago. Honela, astiadieren heziketa lan esparruan ilusioz lan egin nahi duenei zuzendurik dago edota motibazioa duen ororentzako.

Ikastaroan lantzen diren edukiak anitzak dira. Alde batetik, aisialdi hezitzailearen psikologia, pedagogia eta soziologia. Bestetik, aisialdi hezitzailearen parte-hartze eta ekintza hezitzaile. Azkenik, material teknikoak.

Ikastaroaren helburu orokorra «begiralea eta haur gazteekin lan egiteko behar dituen baliabide hezitzaileetaz hornitzea izango da, hau guztia elkarbizitzaren ikuspegitik».

Behin ikastaroa amaituta, praktikak egin ostean, Eusko Jaurlaritzaren haur eta gazteen aisialdirako titulua jasoko dute ikaleek. Matrikula egiteko Hezkide Eskolarekin kontaktuan jarri daitezke interesatutako. 943 31 14 74ra deitu dezakete, edota Donostiako egoitzara jo. Hau Seminario erakinean kokatuta dago.

E Elkarrizketa

BRIXI ARRUE » Albizturko alkatea

«Denak herritarrak garela ikustea eta jendea inplikatzeko nahi dugu»

Albiztur » Abenduaren 4an Ramon Lasa zendu zen, joan den hauteskundeetan alkate izendatu ondoren; udaletxea berriz ere martxan jarri da.

NEREA URBIZU

Brixi Arrue izango da datorren legegaldiko Albizturko alkate berria (Albiztur, 1961). Ramon Lasa alkatearen heriotzarekin etorri da bere kargu berria, ezustekoan. «Udalaldeko kide guztiak berriak, eta elkarrean artean asko laguntzen direnak» direla dio alkateak.

Bat-batean egokitu zaizu alkate izatea. Nola hartu duzu?

Gaixo zegoela bagenekien baina ez nuen espero inolaz ere. Lau urte Ramonekin egingoenituela espero genuen. Egia esan, asko pentsatu dut kargua hartzeko garaian. Gero ikusita taldea ere eta denak batera gaudela onartu eta aurrera. Baina hasieran ustekabe gogorra izan da.

Nola moldatzen zara Udaletxean?

Alkatea ni naiz, baina zazpi lagun gaude bertan, eta inplikazio maila handia dago, denak lanean gaude, eta ez da pertsona baten gainean zama guztia erortzen. Ramon zegoenean berak asko zekien eta egiten zuen, eta udaltaldeak ez zuen ikasteko beharrik ikusten. Ramonek bazekien dena egiten. Kasu honetan, denak berriak ginen bera

ezik. Ramon alkatea zen egun osoan (gaixotasunarengatik jubilatuta zegoen). Ez ginen hainbeste kezkatzen, bera gai zelako dena egiteko: eskua botatzeko beti prest egoten zen gainera. Ni ez naiz Ramon bezala ibiliko: beste lan batzuk ere egiten ditut hemendik kanpo, nahiz eta alkatezarena ere gustura egin.

Ramonen heriotza, idazkariaren ere arazo batzuk... Zer moduz orain Udaletxean?

Idazkaria ere gaixo egon da hilabete batzuetan, bere ordezkia lortu genuen baina beste lan bat egokitu zitzaion... Paper kontu asko, izendapen ofizialekoak, adibidez, atzeratu egin dira. Gainera, idazkaririk gabe ezin izan dugu osoko bilkurarik egin. Ia bi hilabete blokeatuta egon da dena. Lehengo astean egin genuen lehenengo osoko bilkura, eta datorrena, berriz, datorren astean, dena eguneratzen joateko.

Udalalde berria guztiz. Nola ikusten duzu taldea, pozik?

Nire ustez orekatua dago. Denak gazteak gara, baina gogotsu, ikasteko eta lan egiteko gaude. Astero biltzen gara, komisiotan banatuta gaude, eta denak dena edo denon



N. URBIZU

lana nahi dugu ikasi eta jakin. Iritzia emateko konfidantza daukagu, ondo moldatzen gara. Talde bakarra gara, eta gauzak esateko, eztabaidatzeko eta pentsatzeko dena esateko. Erdibide bat bilatu behar dela argi daukagu eta denon artean saiatzen gara. Taldea oso polita da.

Zein da zinegotzi berria?

Iban Artola da, eta hasiera batean ordezkariaren zerrendako azkena zen, baina hiru ordezkariaren hitz egin genuen, inor ez dugulako behartu nahi, gainera denbora eskatzen du. Haien artean erabaki zuten nor pasa zinegotzi izatera. Kontuan izan behar da, gainera,

salbuespeneko kasua, edo oso berezia izan dela. Alkatea hil zelako pasa da zerrendako azkena zinegotzi izatera.

Zein proiekturi helduko diozue lehenik?

Haurtzaindegia heldu diogu. Partzuergoak baiezkotzea esan digu, lekua badago eta egokitzea falta da. Ezin dugu ahaztu arau berriztatzaileak ere daudela. Aurten horri heldu nahi diogu ere. Aldaketa batzuk proposatu genituen arauetan eta hurrengo batzarrean aurkeztuko ditugu. Hasieran egindako planoek bakarrik herriaren gunea hartzen zuten kontuan, eta gure ustez, arau berriztatzaileena etxe-

ak non egin behar diren esatea baino gehiago da. Lan handia da.

Zein dira ikusten dituzuen beharrik herrian?

Santa Marina auzoko ur hornidurera ere bukatzen ari da. Zerbitzu mailan galdetu nahi dugu zein behar dauden, kultur ekintzak bultzatu nahi ditugu. Esaterako, bertso afari bat egin behar dugu otsailaren 23an Iker Zubeldiarekin eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.

Taldeen banatuta zaudete: zein dira talde horiek?

Hiru komisioko desberdin daude: bata kulturaz, hezkuntzaz, gazteez arduratzen da. Bestea langileena, aurrekontuak eta gizarte zerbitzuetakoa da; hirugarren hirigintzakoa. Gai gehiago jorratzen dira baina horietan labur daitezke.

Zer lortu nahi zenuke lau urte hauetan herritar bezala?

Taldea osatu genuenean eta gero ere nahi genuena honakoa zen: jendea, herritarrak inplikatzeko, eta

Astero biltzen gara komisiotan banatuta eta denon lana nahi dugu ikusi eta jakin, ikasi**Haurtzaindegia partzuergoak baiezkotzea esan dio, lekua badago eta egokitzea falta da****Idazkaririk gabe ezin izan dugu osoko bilkurarik eta guztia bi hilabetez blokeatuta egon da**

sentituraztea herritarrak denak garela eta gu ordezkari batzuk garela. Inplikazio maila hori lortuko bagenu izango litzateke gure aurrerapen handiena.

Albizturko emakumezko lehen alkatea ez zara.

Ez. Errepublikara garaian ere beste batzitan zen, irakaslea zen, baina ez dut uste bertakoa izango zenik. Beraz, bigarrena naiz. Udaltaldean lau emakumezko gaude, eta hiru gizonezko.

hitzaren eskutik

G PUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia 6 €

Deitu: 902-82 02 01

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza**Patagonian jazotako istripuan Maria Zubillaga leizarra onik atera da**

Leitza » Iruñeko mutil batekin zegoen oporretan, eta auto istripuan gazte hau hil egin da; leizarra onik atera da.

ERREDAKZIOA

Herenegun Leitza neskak Patagonian (Argentina) istripu bat izan zuen, baina onik atera da. Ez, ordea, berarekin zihoan

mutil iruindarra (Pablo Lopez), ezbeharrean hil egin baitzen. Neska leizarra Maria Zubillaga Saralegi da, 27 urtekoa. Dirudienez, autoa irauli egin zen. Bi gazteak hiru hilabetetarako joan ziren bertara, oporretara.

Argentinako hegoaldeko errepide honek ez zuen asfaltorik. Zehazki, Andes mendikatearen aldeko aldeko errepidea da. Oraindik ez dakite istripua nolatan gertatu zen, baina seguraski bat-bateko

maniobra batengatik izan zela dioteturri batzuk.

Taxi gidariarekin ospitalera

Taxi gidari batek eraman zituen El Calafateko ospitalera, eta bertan iruindarraren heriotza baieztatu zuten. Zubillagari alta handik ordu batzuetara eman zioten eta fisiko ki «ongi» dagoela adierazi dute. Bikotea El Calafateko El Chaltonera zihoan, baina ez dute zehaztu zergatik.

TXOTX

Urbartarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.laiarretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiarretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Araneder bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523 905 Errenteria

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etzaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Begiristain

Iturrioz baseria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baseria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baseria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baseria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baseria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baseria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baseria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baseria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidrieraakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidrieraakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrerak Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Aurreztu 600 €
zinezko txilenak ikusiz



10. urtemugako eskaintza mugatua:

Kontratatu zuntz optikoa,



TB Digitala
(bertako erabilgarritasun iturria,
ez daude oinarritzen...)



6 M-bit Banda Zabala



Telefonia Finkoa

eta aurreztu 600 € urtebetean.



Diritza © 2007 eta zuzen Euskaltelen saltokietara.

Santiamon hiruak 2007koaz azken 10.000.000 €-rekin diruzko herentzia jasotzeko bidean daude. Horien artean 10.000.000 €-rekin Euskaltelen 10.000.000 €-rekin jasotzeko bidean daude. Horien artean 10.000.000 €-rekin Euskaltelen 10.000.000 €-rekin jasotzeko bidean daude. Horien artean 10.000.000 €-rekin Euskaltelen 10.000.000 €-rekin jasotzeko bidean daude.

Euroagindua ukatu eta aske utzi dute Eneko Galarraga

Villabona » 18:30ak inguruan askatu zuten Tolosako espetxetik eta bertara joandako lagun eta senideekin itzuli zen.

ASIERIMAZ

Eneko Galarraga Godoi, pasa den astean Frantziako polizia Urruñan (Lapurdi) atxilotu zuen billabonatarra aske utzi zuten atzo 18:30ak inguruan, Frantziako justiziak Espainiak aurkeztutako euroagindua atzera bota ostean.

Bertara joan ziren senide eta lagunek azaldu zuten, «ongi» aurkitu zuten Galarraga Tolosako espetxetik irteeran, «aske gelditzen zela azken unean esan zioten, hamar minutu lehenago. Bera patioan egona eta afalduta zegoen, hori bai, ezergabe, bisitarik eta ezersartzeko aukerarik ez baitzen izan oraindik». Eneko Galarragak 15 egun behin Donibane Lohitzuneko komisaritzara joan beharko

du sinatzera eta oraingo ezin izango du Pirinio Atlantikoko Departamendutik irten.

Tolosa-Pau-Tolosa

Eneko Galarragaren senide eta lagunak Pau-era joan ziren goizean eta audientziaren barnean, aretoan, billabonatarra ikusteko aukera izan zuten. Ondoren, gurasoek eta neskalagunak berarekin bi minutu egoteko aukera izan zuten familiak jakinarazi zuzenez, «ondo dagoela eta lasai dagoela» azaldu ziren hauei.

Paue-ko audientziatik igaro ondoren, berritri ere Tolosako espetxera eraman zuten Galarraga, euroaginduaren inguruko erabakia oraindik plazaratu gabe zela. Euroagindua atzera botatzearan erabakia 14:00etan hartu zuten Audientzian. Bien bitartean, Villabonatik bertara joandakoak Okzitaniako Elkartzaren Komiteko kideekin pasa zituzten orduak. Behin erabakiaren berri izatean, Tolosako espetxera gerturatu zi-

ren, 00:00ak baino lehen askatuko zutela jakinarazi baitzuen justizia arduradunek.

18:30ak inguruan askatu zuten Villabonako gaztea eta Tolosatik Euskal Herrirako itzulerari ekin zioten bere bila joandako lagun eta senideek.

«Erredakzio traketsa»

Eneko Galarragaren ingurukoek azaldu zuten, audientzian fiskalak bi ardatzen inguruan aztertu zuten euroagindua; «lehenik erre-dakzioa traketsa egin, frogak ongi arrazoitugabeak etabar zeudela esan zuten fiskalak. Beste alde batek, Enekok haurra eta lana zituela bizitza zein familia egituratuak zituela aipatu zuten».

Ministerio Publikoak gorteei eskaera bat zuzendu diela jakinarazi du espainiar berri agentzia batek. Honen arabera, Espainiako Justiziari informazio gehiago bidaltzea eskatuko diote, «euroaginduan ez baitira azaltzen Galarragari leporatzen zaizkion ekintzak».

Ibarra FS taldeak 4-3 irabazi zion C. Saenz-i

Ibarra » Belabieta kiroldegian jokatu beharrean, Usabal kiroldegian jokatu zuten talde ibartarrak.

A. IMAZ

Ibarra FS taldeak 4-3 irabazi zion etxean Carnicerias Saenz talde gasteiztarrari iragan larunbatean. Garaipen honekin sailkapeneko bosgarren postua lortu dute ibartarrak, laugarren doan Sestaoren berdinduta. Bi taldeek 18 jardunalditan 29na puntu lortu dituzte eta larunbat honetan elkarren aurka lehiatu dira Sestaon.

Hirugarren garaipena jarraian

Ibarra taldeak denboraldia patat antzera hasi bazuen ere, bigarren itzuliaren hasieran, emaitza onak lortzen ari da eta iragan larunbateko garaipenarekin, iada hiru daramatza jarraian.

Etxean jokatu zuten arren, ez zuten ohiko lekuan, Ibarra Belabietan jokatu, Tolosako Usabal kiroldegian baizik.

Txubel entrenatzailearen mutlak bigarren minuturako aurretik jarri ziren Ion Garmendiak lortutako golari esker. Aldea Victor Silvak handitu zuen zazpigarren minutuan, hala eta guztiz ere, ibartarrak aukera larregi huts egin zituzten eta kanpokoak 2-1ekoa lortu zuten 14. minutuan. Ion An-

der Karrerak 3-1ekoa jarri zuen markagailuan lehenik eta ondoren 4-2koa.

Azken minutuan penaltia

Partida ikusgarri baten azken minutua 4-3ko emaitzarekin iritsi ziren ibartarrak. Epailere ordea, azken minutu horretan kanpoko taldeari penaltia oparitu zien, berdinketa lortzeko aukera bikaina eskainiz. Ibarra atezainak ordea, Igor Zabalok, ederki gelditu zuen baloia, garaipena eta hiru puntuak etxean gelditzea ahalbideratuz.

Ibarra Sestaoren aurka jokatu ko du asteburu honetan, laugarren postuaren bilako borrokan.

» SAILKAPENA

Nazional A-II. Multzoa

18. jardunaldia.

1. Burlata	40 puntu
2. EHU	40p.
3. Gernika	38p.
4. Sestao	29p.
5. Ibarra	29p.
6. Pajarin	27p.
7. Atenea	27p.
8. Candesa	26p.
9. Santurtzi	24p.
10. Solozarte	24p.
11. Arnedo	21p.
12. C. Saenz	20p.
13. Xota	19p.
14. Rib. Navara	18p.
15. Liebana	17p.
16. Alcorrioja	8p.

Bost herritarrek osatutako gestora jarriko dute udaletxean

Elduain » Bost herritarrek osatuko dute gestora eta etzi aukeratuko dute bera zuzenduko duen lehendakaria.

A. IMAZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, etzitik aurrera gestora batek hartuko du Elduaingo Udalaren funtzionamenduaren ardura.

Udaletxean 13:30ean egingo dute etzi bilkura eta bertan, Jose Angel Urkizu, Mirian Elorza, Rafael Gurrutxaga, Eneko Imaz eta Iñaki Kerejeta elduaindarrek euren ardurak hartuko dituzte. Ondoren, gestora zuzenduko duen le-

hendakaria aukeratuko dute euren artean.

Eneko Goiak, Gipuzkoako Foru Aldundiako bozeramaleak, Elduaingo udaletxea «normaltasunera» itzuliko dela azaldu zuen atzokoan.

Herritarrek aurkeztutako bost lagun

Emaniko urratsei dagokien, bost pertsona hauek izendatzeko garaian Elduaingo idazkariarekin eta aurreko udaleko partaideekin harremanetan egon direla azaldu du Eneko Goiak.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bozeramaleak jakinarazi duenez, bost elduaindarren akreditazioak hauteskunde batza-zentralera eramatea ez zela

beharrezkoa esan zuten bertatik, ondorioz, herritarrek aurkeztutako bost pertsonak osatuko dute gestora.

Azken hauteskundeetara ANV-EAE eta PP alderdiak bakarrik aurkeztu ziren Elduainen. Lehenak legez kanpo utzi zituen Espainiako justiziak eta PPren zerrendako kideek berriz, uko egin zioten Udaleko karguei bozka bat jaso ondoren eta 182.2 artikulua aplikatzea eskatu zuten Lizartzaren moduan, zerrenda berri bat sartu zedin. Hauteskunde batzak aukera hau ukatu egin zion PPri eta ondorioz aurreko legealdiko Udala (EAJ) jarri zuen funtzioetan, Bittor Muñagorri buru zela. Honek 2007ko abenduaren kargua utzi egin zuen.

Laburrak

Ohiko udalbatzarra gaur 20:30ean udaletxean

LEABURU-TXARAMA » Mari Cruz Agirre alkateak deituta ohiko udalbatzarra egingo dute gaur udaletxean. 20:30erako deitu du batzarre-alkateak eta bertan 3 puntuko gai-zerrenda bozkatuko dute. Lehenik aurreko aktak onartuko dira eta ondoren Alkatetza Dekretuen berri emango da. Azkenik eskari eta galderen txanda izango da.

Udalak Ibarri buruzko DVDa jarri du salgai


IBARRA » Udalak Barne Baretik, Ibarra izenpean Ibarri buruzko ikusentzunezko DVDa jarri du salgai. DVDaren salneurria 6 eurokoa da eta udaletxean bertan edo Benito Izagirre kultur etxean erosi ahal izango da. Bertan herritari buruzko informazio orokorra agertzen da, Ibarra hainbat irudiz eta musikaz janzirik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65-56-95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

L Laburrak

Ezohiko udal plenoa egingo dute gaur

ANOETA ● Gaur, 19:00etan ez ohiko udal plenoa egingo dute Anoetan. Aurreko akta onartzearekin batera 4 puntu jorratuko dituzte: alkatezaren ebazpenen berri ematea, Gipuzkoa eta Donostia Kutzaren gobernu-organoen izendapenean parte hartzeko proposamena, Mankomunitatearen funtzioak Udalak asumitzea eta EAEn Toruraren aurkako mozioa.

Talai dantzarien entsegua gaur udaletxe azpian

AMEZKETA ● Inauteriak gero eta gertuago daude eta prestaketa lanak hasi dituzte Amezetan. Hala, Talai dantzariak dantzaren entsegua egingo dute gaur bertan, igandean eta astelehenean herrian zehar dantzatzeko. Entsegua 20:00etatik aurrera egingo dute, udaletxe azpian. Nahi duena gertura dadila deialdia egin dute antolatzaileek.

Candanchura eskiatzera egingo autobusa

ALZKO ● Altzoko Udaletik Candanchura (Aragoi, Espainia) eskiatzera joateko autobusa antolatuko dute. Interesatuek 3 euroren truke eman dezakete izena, udaletxean bertan bulego ordutegian (943 65 24 13 telefono zenbakian). Irteera otsailaren 10ean joango dira, 06:30ean aterako direlarik. Izena emateko azken eguna, etzi izango da, ostialarrekin.

Ernioko mendi martxarako izen-ematea zabalik

ALKIZA ● Datorren maiatzaren 11n, Ernio inguruko herriak lotzen dituen mendi martxa egingo dute. Alkiza izango da irteera eta amaiera puntua. Izen-ematea dagoeneko zabaldu dute eta Alkizako Udaletxean egin daiteke. Izen-emate horiek egiteko, hainbat bide ireki dituzte: 943 69 02 35 zenbakian, bertara joanda zein alkiza@udal.gipuzkoa.net helbidean.

Charo Berraren margolanak Aranburun

TOLOSA ● Charo Berra tolosarraren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 16ra arte. Bertan zuhaitzarekin zerikusia duten lanak daude hain zuzen ere, zuhaitzari begiratzea hein batean norbere biziri begiratzea bezalako dela dio artistak. Pertsonaren bila-kaera zuhaitzarekin konparatuz.

Bidegorriaren lanerako hobekuntzak onartu dituzte

Asteasu-Zizurkil » Foru Aldundiak «beharrezkotzat jo» du ibilbidean aldaketak egitea; aurrekontua 1.320.080 eurokoa da.

ERREDAKZIOA

Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorriaren lanak burutzeko kontratuen aldaketa onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektuak 1.320.080 euroko aurrekontua du.

Hala, adostutako aldaketek bizikletentzako bidea gas biltegitik

urrundu, ezpona baten egonkortasuna hobetu eta zuntz optikoa ezartzeko kanalizazioa gauzatzea ahalbidetuko dute.

Zehazki, obrak gauzatzen diren bitartean, beharrezkotzat jo dute ibilbidean aldaketak egitea, hala eragindako lurak kudeatzea zaila delako nola ibilbidetik gertu gas biltegi bat dagoelako. Hasiera batean aurreikusitakoa baino handiagoa den hondeaketa ezpona bat egonkortzeko neurriak ere hartu behar dituztela jakinarazi dute.

Horrez gain, «interesgarritzat» jo dute etorkizuneko argiteriarako

kanalizazioaren babesa hobetzea, zoruaren azpiko drainatzea ezartzea trazatuaren zenbait puntutan eta trazatuaren lanak aprobetxatzea zuntz optikoaren kanalizazioa egiteko landa inguruneko udalerrietan banda zabala sustatzeko jardueren esparruan.

Ekainean amaituko dute

Pasa den urteko irailaren 24an ekin zieten lanei eta hori gauzaterakoan onartu zituzten beharrezko aldaketen ondoren, ekainean amaituko dituzte. Azpiegitura berriak Asteasu eta Zizurkil lotuko ditu 3.120 metroko luzera eta 3 me-

troko zabalera izango duen ibilbidearen bidez, azken 400 metroetan 4 metroko zabalera izan arren «ibilgailu baimenduak pasa ahal izateko». Bidegorria oinezko nahiz bizikletentzako izango da eta zorua asfaltzoko aglomeratu beltzezkoa izango da. Ibilbide guztiaren zurezko eskudela eta egoki diren seinaleak izango ditu.

Foru Aldundiaren helburua, «autoa ordezkatzeko»

Foru Aldundiko ordezkariak azaldu dituzte autoa sustatu ordez, «beste garraio bide batzuk ari gara bultzatzen inguruko herritarren joan-etorrietarako, eta bizikleta nahiz oinezkoentzako ibilbideak ari gara balioesten helburu horrikin». Honekin guztiarekin asmoa ibilbide horiek era askotako jarduerak eta eginkizunak betetzeko bizikletariei eta oinezkoen balio izatea (lanekoak, komertzialak, aisialdikoak, naturakoak...).

Alpino Uzturre elkartekoak bikain Euskadiko Iraupen Eskiko Txapelketan

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Euskadiko Iraupen Eskiko Txapelketa jokatu zuten Candanchun (Aragoi, Espainia).

Bertan, Tolosako Alpino Uzturre elkarteko eskiatzaileek lan bikaina egin zuten, Rojo anaiek parte hartu ez zuten arren. Kadete mailan, klasiko eran Erlantz Gonzalez suertatu zen irabazle eta Skating eran, berriz, Xabier Saizar.

Master mailan, Lourdes Irazutak irabazi zuen txapelketa eta Senior mailan Aitor Igarategik hirugarren postuan sailkatu zen bai klasiko, bai skating eran.

S Soka motzean

«Otordua sagardoarekin hasi eta bukatzea komeni da»

JOSU ABURUZA

Sagardogilea

IMANOL GARCIA

Josu Aburuzak (Aduna, 1976) familiaren sagardotegian egiten du lan.

Zer moduzko sagardoa da aurtengoa?

Orokorrean ona. Iaz baino gradu gutxiagokoa eta edateko errazagoa.

Zer moduz hasi da denboraldia?

Ondo. Urtarrila lasaia da. Otsailetik aurrera jende gehiago hasiko da etortzen.

Zenbat ordu sartzen dituzu lanean?

Ordutegi finkorik ez dut; goizez, arratsalde eta guez.

Sagardotegiko hurrengo eguneko ajeari nola egin aurre?

Sagardorearekin bakarrik ez da aje handirik izaten.

Sagardoarekin batera zer ez da edan behar?

Otordua sagardorekin hasiz gero sagardoarekin bukatzea komeni da.

Nola jakin zenbateraino edan behar den?

Hori bakoitzaren arabera izaten da. Norberak ikusi behar zein den topea.

Zer egin gehiegi edaten duenarekin?

Normalean ez da arazorik izaten.

Zuri ezustean harrapatu zaitu sagardoak?

Bai, niri ere pasatzen zait hori.

Noiz probatu zenuen lehenengo aldiz sagardoa?

Ez naiz gogoratzen, baina oso txikia nintzela izan zen.



I. GARCIA

G Gutunak

Tolosako alkatearen karrera politikoa

Tolosarren sufragio umibertsalaren eskubidea zapalduta burutu dira udal hauteskundeak, eta hauteskunderen emaitzak ez dira errespetatu udala eratzerakoan. Alkateak 2.000 tolosarren eskubideak baztertuta eskuratu du Tolosako alkateza.

Alkatea, Tolosako alkate izateagatik, EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarteko presidente da. EUDELeko presidentek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 150.000 herritarren eskubide zibil eta politikoa baztertuta lortu du EUDEL-en burua.

EUDELeko presidente izateagatik, CEMR, Europako Udalerri eta Eskualde Kontseiluko zuzendaritza batzordeko kide izendatu dute. 'Apartheid' ez demokratikoa burututa erdietsi du batzordeko kideztza, alderdi politikoan illegalizazioa eta errepresioa indar betean dagoen une politiko honetan.

Hori da arrakasta eta karrerapolitikoak, salbuespeneko egoera honetan! Hori da hitzen distira komunikabideetan! «Europar udal demokrazia defenditu eta zainduta» da helburua (hori dio hemen udal demokrazia ez defenditu ez zaindu egin duenak). Eudeleko presidentearen eginkizuna, berriz, «bakearen alde» lan egitea da.

Hitz horien gainetik, ordea, EAJren eguneroko praktika gailentzen da; eskubide urratze nabarmenak printzipio demokratikoen aurka, eta Euskal Herriaren autodeterminazioa eta independentzia debekatzen duen autonomia espainolaren alde.

Euskal Herriarentzat demokrazia lortzearen, euskal herritar asko horrenbeste sufritzen ari dezan, hitzen eta egintzen arteko koherentziarik gabe, aldarrikapen eta arrakasta horiek, ez al dira botoak lortzeko demagogia bihurtzen?

Inazio Agirre. Ezker abertzaleko kidea.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Amezketeta.** Amezketa Talai dantzariak dantzaren entsegua egingo dute udaletxe azpian, 20:00etan, igandean eta astelehenean herrian zehar dantzatzeko. Nahi duena gertura dadila.
- **Hernialde.** Otsailaren 9an ehiza txapelketa jokatu da Hernialden herri mailan. Lehen hiru saikatuak hilaren 16an Amasan eskualdeko kanporaketara. Izen-ematea, udaletxean (943 654494), otsailaren 4erako.
- **Ibarra.** *Barne baretik, Ibarra* izenburupean Ibarri buruzko DVDa jarri berri du salgai dago Benito Izagirre kultur etxean eta udaletxean 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez.
- **Tolosa.** Usabal kiroldegia eta igerilekua itxita egongo da bihartik otsailaren 6ra zenbait lan egin ahal izateko.
- **Villabona.** Loatzo Tiro Elkarteak bazkideei jakinarazten zaie otsailaren 9an, 14:00tik aurrera, ospatuko den Ehiza Txiki Txapelketarako izen-ematea Eizmendi armategian egin behar dela.

Zinema

- **Leitza.** 17:00etan, haur eta gaztetxoentzat zuzenduriko zine proiektzioa ikusteko aukera egongo da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.
- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7.943670648.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

June eta Beñat Intza Jauregi. Gaur 7 urte betetzen dituzte. Zorionak eta muxu handi bat izeba Maritxuren partetik.

Inauterietako azken arnasa Atsaureen desfilearen eskutik

NEREA URBIZU

Atsaureen desfilea izan zen atzo arratsaldean, Inauterietako azken arnasa. Leitza bakarrik ikus daitekeen janzkera bitxia han izan zen: ikusi ezin diren aurpegiak, lumak, kolore bitxiak... Zintzarrien hotsak erraz entzuten ziren Leitzaan.

Atsaureen desfilea herriko Kale Nagusitik hasi zen eta Gaztañaga tabernaren parean gelditu egin ziren Atsaureak. Handik berriro ere plazara joan ziren. Bitarte guzti horretan txistulariek eta danbolin joleek kalea alaitu zuten euren doinuekin.

Hala ere, atsaureez gain txantxo modukoak ere ikusi ahal izan ziren. Aurten berreskuratzeari ekin diote eta ez da urte txarra izan: 20 atsauretik gora ibili ziren, aurpegia estalita, eta Agustín Aranburuk esan bezala, tunika eta guzti. Atsaureen atzetik herriko jendea ere ibili zen kalejiran, eta moztro gehiago ere ikusi ahal izan ziren.

Balkobeetan ere Atsaureak azaldu dira

Bestela ere, kaleko balkoberen batean-edo beste atsaureen bat ere ikusi izan zen atzokoan, ohiko puzgarri eta oiha alaietz gain. Datorren urtean, atzoko arrakasta ikusita, errepikatuko dute ekitaldi hau ziurrenik ere. Bestela ere jaiak bereak egin du aurtengoan eta agur esan diete leitzarrek euren Ihoteei.



Otsailean zure kioskoan



Egin zaitez harpidedun:
hitzaren harpidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**